

09: Jarduera txostena





aurkibidea


Presidentzia & Batzorde Iraunkorra	1
Lurraldetasuna	3
Bizi baldintza materialak	9
Hezkuntza	15
Justizia eta berdintasunerako baldintzak	21
Komunikazioa	28
Arlo teknikoen koordinazioa	33
Balantze ekonomikoa	34

Laguntzaileak:



Ongi etorri Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak egin duen aldizkari formatuko lehen jarduera-txostenera! Honako argitalpen hau EGK-ren proiektuak modu bizi eta erakargarri batean aurkezteko lehen saiakera da. Irakurtzen bukatzen duzunean oraindik ere gehiago nahi baduzu... gure web orrialdean (www.egk.org) memoria luze ofiziala duzu zain, xehetasun guztiekin

On egin!



presidentzia eta batzorde iraunkorra


Presidentzia eta Batzorde Iraunkorra

2009ko urtarrila, otsaila eta martxoko hilabeteak 2007an bi urtetarako aukeratuta izan zen Batzorde Iraunkorrari dagozkio. Hilabete horietan, Batzordeko lana gehienbat lan politikoan zentratu zen. Azpimarratu ditzakegu hiru aldundiekin egingako negoziaketak, Kontseiluko lana finantzatzeko hitzarmenen inguruan. Negoziaketa gogorren ondoren, egungo Batzorde Iraunkorrak (BI) sinatutako hitzarmenetan zehaztuta geratu ziren akordio-tara iritsi zen. Eusko Jaurlaritzako Gazteriako Zuzendaritzarekin harreman zuzena izan dugu ere. Bestalde, Innobasquen parte hartzeko hitzarmena sinatu da eta, eguneroko lanean, garrantzitsua da

azpimarratzea Tipi-Topa (Astialdiaren inguruko Kongresua) prozesua.

Azpimarratzekoa da ere lehen aldiz EGK-ko lehendakari bat Gipuzkoako Batzar Nagusietako Gazteriako Batzordean parte hartu izana, ganberan dauden alderdi politikoen gazteekin batera. Balorazioa positiboa izan zen.

Jakina denez, 2009ko martxoan Batzordel-iraunkorraren osaera aldatu zen (2009-2011 aldirako). Batzorde Iraunkorrak postu guztiak bete zituen, bi alderdi politikotako talde gazteak Batzorde horretatik kanpo geratu zirelarik. Lehendabiziko aldia izan da horrelako zerbait gertatzen



dela, eta entitate hauetan ezinegon sortu da. Guztiarekin, hilabete hauetan Batzordeko lana oso aktiboa izan da. Jarraian dagoena azpimarra dezakegu:

- Arlo ezberdinen lanketa, talde teknikoarekin harreman estuan.
- Talde teknikoko bajak eta kontratazioen kudeaketa.
- Administrazio ezberdinekin lan politikoa burutu. Lehendakari berriarekin izandako topaketa azpimarratu dezakegu, eta Gazteriako Legea sustatzeari begira, Gazteriako Zuzendaritza berriarekin eta Zuzendari berriarekin egindako lana.
- Gazteriaren Legerako prozesuri begira, prozesu partehartzaile bat antolatu (Gaztelegea 2.0) da. Prozesu hau ezin izan da abian jarri, baina laster martxan izatea espero dugu.

GAZTELEGEA 2.0

- EGK barruan, pertsona eta alderdi politiko ezberdinekin elkarriketak burutu dira politikari gazteen foro bat bultzatzeko. Segiko kideen atxiloketen inguruan Kontseiluak igorritako komunikatu batek sortutako egonezina dela eta, ez da martxan jarri.
- Kontseiluko lan talde batek DOT_LOA-ren (Lurraldearen Ordenantza Arautzailea) inguruan idatzitako txostenaren lanketa egin da.
- Eusko Jaurlaritzaren Emakumearen eta Gazteriaren Batzordean agerraldia. Aurreko urtean EGK-k egindako lana azaltzeko ohiko agerraldia.
- Segiko atxiloketen inguruan EGK-k kale-raturiko komunikatuaren ondoren (2009ko azaroaren 24ean), politika eta gizarte eragileekin instituzio lana gehiago areagotu dugu, gatazkari nola aurre egin aztertu eta iraunkorraren batasuna eta egoeraren aurrean daukagun gure ikuspegia azaltzeko bilera ezberdinak burutuz.
- Ohiko lanari dagokionez, aipagarria da 2009ko memoria eta 2010ko lan plangint-



zaren onartzea, bai eta likidezia arazoak murrizteari begira BBKrekin egin den kreditu ildoaren kontratazioa (xehetasunak, memoria ekonomikoan).

Azkenik, oso modu baikorrean baloratzen dugu aurreko Batzarrean egindako Barne Arautegiaren (B.A.) aldaketa; aldaketa honen ondorioz, Batzorde Iraunkorreko bokalen aldaketak batzarrak burutu gabe egitea ahalbideratzen da. Honek Batzorde Iraunkorrean ekipo oso eta aktibo bat mantentzea ahalbideratu du.

PRESIDENTEA: Kale Dor Kayiko

PRESIDENTEORDEA: EEB - Euskalerriko Eskautak Bizkaia

IDAZKARIA: Bizkaiko Gaztetxoen Koordinakundea

DIRUZAINA: Federación Bosko Taldea

BOKALAK: Geideak-MJAC

Lurgorri Ikasle Elkartea

JOC - Juventud Obrera Cristiana

EHNE - Euskal Herriko Baserritar Gazteak

Ezker Batua Gazteak

CC.OO Gazteak

EGI - Euzko Gaztedi

Gazteleku Garapen Komunitarioko Elkartea


BAT - Bizi Alai Taldeak

EDE Fundazioa

Gazte Komunistak



Lurraldetasuna



EGK-ko elkarteekiko lana

Bihotza eta begiak beti gazte

EGK-k bere lana ahalik eta ikuspegi zabalenarekin egiten du. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona gazteen jarduna eta akitanahitaz hiri, herri, gune edo lurralde jakinetan gauzatzen da. Lurralde Koordinatziotik, Kontseiluaren langintza lurralde bakoitzaren errealitate propiora ahalik eta hoberen txertatzen saiatzen gara, proiektuen arrakasta bermatzeko. Lurraldean eta lurraldearentzat lan egiteak gunean gune, tokian tokiko beharrei erantzutea ahalbidetzen digu. Lurralde bakoitza koordinatzen duen teknikariaren ezagutzak ahalbidetzen du hori: nagusiki Kontseiluko kide diren taldeekin bilduz, bai eta beste motatako eragile eta gazteekin zein herri eta lurralde mailako administrazio publikoekin ere. Denak du lekua lan arlo honetan, baina dauden apustuei era egoki eta indartsu batean aurre egiteko, sarean lan egitea eta eragile guztien inplikazioa ezinbestekoak dira. Bazatoz?

EGK gazte-talde, elkarte eta eragilez osaturiko kontseilua da. Hortaz, bere helburuak talde hauei beraien lanetan laguntzean oinarritzen dira. Laguntza hau modu eta mota desberdinetakoa izan daiteke: administrazio desberdinekin zubi lana, elkartearen arteko elkar ezagutzaren sustapena, aholkularitza, difusio zein komunikazio kanpainak...

Egun, EGK 55 elkarte osatzen dute, eta hauen guztien artean aniztasuna da nagusi. Horrela, aisialdi taldeak, eskolak, talde ekologistak, alderdi politikoen gazte taldeak, sindikatuenak, ikasleak, ezintasun fisiko- psikikoak dituztenak, antimilitaristak, gutxiengo kultural eta aniztasun kulturalen bultzatzaileak eta sexu aniztasunekoak daude, besteak beste.

Aisialdi taldeek, alderdi politikoen gazte taldeek, ekologistek, ikasleek, antimilitaristek, aniztasun kulturalen bultzatzaileek... askotariko elkarteek osatzen dute EGK

Lurraldetasun koordinatzaileen lanaren oinarria elkarte guzti hauen lan-ildoak ezagutzea da. Alegia, euren behar eta gabezien jakitun izatea, laguntza eta kolaborazioa eskaintzeko. Horrela, zuzeneko harremana izaten saiatzen da kontseilua, beraien egoitzetara aldi



aldiko bisitak eginez eta egunerokotasunean harremana mantenduz.

Aurten, Araba zein Gipuzkoan lurralde koordinatzaile berriak hasi dira lanean. Hori dela eta, ahalegin berezi bat egin da elkarte guztiengana gerturatzeko. Bisiten bitartez, taldeek EGK-ko teknikari berriak ezagutzeko parada izan dute, eta teknikariek, bere aldetik, talde hauek dituzten lan ildo eta beharrak ezagutu dituzte.

Aurrez esan bezala, EGK-rentzat funtsezkoa da burutzen dituen prozesu zein lanketetan elkartearen erantzunkidetasuna eta partaidetza sustatzea, urteroko jarduera jakinetan, Batzar Orokorrean, Batzorde Iraunkorrean eta Lan talde mistoetan. Horrela, euren protagonismoa bermatzeko asmoz, proposatu izan diren lantalde ezberdinetan parte hartu izan dute, hala nola Tipi Topa Astialdi Hezitzailearen Biltzarraren antolaketan, DOT (*Directrices de ordenación territorial*) lantaldean, Asanblada Orokorraren antolaketan, Sexu Aniztasun lantaldean, HIESAren aurkako kanpainako materialaren banaketan, Saharar herriarekiko ekimenean...

EGK-ko taldeen inplikazioa

Aipatzekoak dira aurten lehen aldiz martxan jarritako Lantalde Mistoak. Lantalde hauek EGK-ko teknikari eta EGK osatzen duten taldeen arteko elkarrenergina zein harremanak sustatzeko aukera ezin hobeia izan dira, bai eta EGK osatzen duten talde desberdinean arteko hartu-eman zein lan bateratuak egiteko saiakera emankorra ere. Formulazio honen bidez, taldeen arteko hartu- emanak eta sareak indartu dira, baita EGK-ko teknikari eta elkarte-kideen artekoak ere. Zentzu horretan, 2009ko martxoaren 14ko asanbladaren aurreikusitako lantalde guztiak garatu dira urtean zehar, fruitu oparoak eskainiz. Hor dago kulturartekotasunaren inguruan antolaturikoa, sexu aniztasunarena, garapen eta sostengarritasunaren ingurukoa... besteak beste.

Bestalde, aipatzekoa da ere EGK-ko taldeek Saharar herriarekiko proiektuan partehartzeko



erakutsi duten prestutasun eta lanerako asmoa. Proiektu hau euskal gazteei herri zapaldu horren egoera ezagutarazteko bultzatu zuen EGK-k, Nuyum elkartearen eskutik. Horrela, EGK osatzen duten taldeen inplikazioa handia izan zen: talde bakarra osatu beharrean (aurreikusita zegoen bezala), hiru antolatu ziren, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde bakoitzeko bat.





SARE eta ERAGILEEKIKO LANA

Zelan erein, hala bildu

EGK osatzen duten taldeetatik harantz, beharrezkoa egiten da beste gazte talde eta gizarte eragileekin elkarlanean aritzea. Ikuspegi orokor eta anitzagoa lantzeaz gain, beste gizarte eragileekin hartu emanak izateak hiru lurraldeetan antolatzen diren ekintza desberdinen berri izateko balio du, bai eta elkarteen arteko sareak indartu eta Kontseiluaren eragin esparrua zabaltzeko ere. Harreman sare horren barruan egoteak EGK-k beraren indartzea zein bere elkarteek bultzatzen dituzten lanen indartzea dakar.

EGK osatzen EZ duten elkarteekin harremanetan egotea beharrezkoa da ere, ikuspegi orokor eta anitzagoak lantzeko, besteak beste





Zentzu horretan, EGK-ko elkarteez landa Gobernuz Kanpoko Erakundeekin (GKE) eta, oro har, gizarte eragileekin harremanetan egoteak Kontseiluari bere buruan ez ixten laguntzen dio; hots, bizi den gizartearen parte izaten. Horretarako, burutzen diren ekintza zein talde anitzetako plataformetan parte hartzen saiatzen da, baldin eta EGK-k duen filosofiarekin bat egiten badute. EGK-ren ildo eta izaera 2011 bitarteko Plan Estrategikoan zehazten da: hori da beraz gizarte eragile desberdinekin lan egiterakoan kontutan hartzen den ildo.

Lurralde historiko bakoitzak duen errealtatearen arabera lan gehiago edo gutxiago egiten du EGK-k gizartearen sortzen diren plataforma zein egitasmo bateratuetan. Orokorrean, Bizkaia beti izan da lantalde bateratu hauek sortzeko garaian indar eta ohitura gehien izan duen lurraldea, besteak beste, Bilbo bezalako hirigune batek duen zentraltasunagatik. Gipuzkoa eta Araban, berriz, antolaketa hau askoz ere urriagoa da, eta plataforma bateratuen gainetik, auzo zein talde txiki eta bakanduen inizatibak gailentzen dira. Hala ere, ahal den neurrian EGK hau aldatzen saiatzen da, kontseiluarentzat eragile desberdinen arteko lanketa, gizarte sareen indartzea eta lanketa bateratuen gauzatzea oinarritzko printzipio bat baita.

*Egin ta egin, bultza ta bultza, denon ekimen denon laguntza,
Egin behar da, egingo dugu, denon ekimen denon helburu (Etzakit)*

2009ko sare eta plataformak:

Urte osoan zehar, hiru lurraldeetan sortu diren plataformetan eta gizarte mugimenduek garatu dituzten jardunetan 200 eragile desberdinekin—gutxi gorabehera— aritu gara elkarlanean.

- Urriak 17 – Pobreziaren aurkako nazioarteko eguna (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa)
- Zero Pobrezia (Gipuzkoa)
- Ekintza Globalerako Astea (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa)
- Boluntariotza lantaldea (Gipuzkoa)
- Euskal Herriko Gazteriaren Kontseilua, EHKG (Gipuzkoa)



- Gerraren Aurkako Plataforma (Gipuzkoa)
- Palestina herriarekiko elkartasunezko plataforma (Bizkaia)
- G-8 Akatu! (Bizkaia)
- Hemen ez dago inor sobran! (Bizkaia)
- Herria Abian (Bizkaia)
- M-21ko Greba Orokorra (Bizkaia)
- Garoña: itxi orain! (Bizkaia)
- Aldaketa klimatikoaren kontrako plataforma (Bizkaia)
- Gure ametsak 360.000 (Bizkaia)
- Goitibera Aldizkaria (Bizkaia)
- Bolunta (Bizkaia)
- ERDU (Araba)
- Gizalde (Gipuzkoa)
- Bizkaia Irratia (Bizkaia)

ADMINISTRAZIOAREKIKO LANA

*Ibilian egiten da bidea
(Antonio Machado)*

Gazteria-eragile funtsezko bat baldin badago, hori administrazio publikoa da: ez bakarrik gazteria-esparruan egiten den guztia arautzeaz arduratzen delako, baizik eta, horretaz gain, baliabide gehien dituen eragilea delako eta baliabide horiek berak erabakitako baldintzen arabera banatzen dituelako ere. Hori dela eta, nahitaezkoa da eragile boteretsu honekin elkarriketarako eta elkarlanerako bideak irekitzea.

Posible den heinean,
gazteria politiken
diseinuan eragina izaten
saiatzen gara

Hartu eman hau administrazio publikoek eta gazte eragileek sarri izaten duten harreman urriak gainditzeko burutzen da. Horretarako, sarritan elkarleen eta administrazioaren arteko zubi lana egiten du EGK-k. Gainera, dinamika horiek marko orokorraren ikuspegi argia eta ezagutza hobea izaten laguntzeaz gain, elkarlanetik abiatutako prozesuak zehazten ahalbidetuko digu-eta.

Azpirarragarriak dira udal mailan gazteria teknikariekin urte guztian zehar izaten ditugun bilerak. Bilera hauek lurralde koordinatzaileei lurraldearen ikuspegi orokor eta zehatz bat izatea ahalbidetzen digute, tokian tokiko errealitatea ezagutuz eta informazio trukaketaren bidez, batean eta bestean ematen diren errealitate desberdinak uztartzen saiatu.

Aipatutako bilerek orokorrean elkarkidetza definitu, hobetu, bestearen berri izan, elkarlan koordinatu bat izan eta sareak indartzea izan dute helburu.

Lorpen esanguratsuenetarikoen artean, honakoak aipatu behar dira: alde batetik, **Arabako Gazteria Foru Erakundearekin lortutako lehendabiziko hitzarmena**, eta, bestetik, Bizkaiko Aldundiarekin lortutako hiru urtetarako hitzarmena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- Gaztematika
- "Gipuzkoa + 20
- Parte hartuz erabakitzen dugu jardunaldia.
- Kultura Politikoa Gipuzkoan: Hausnarketa Jardunaldiak Gipuzkoako bulego teknikoak

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- Hitzarmenerako batzorde forala

ARABAKO GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

- EAE-ko gazteria baliabideen azterketa

BILBOKO UDALA

- Gizarte Egutegia
- Bilboko Bakearen V Astea
- Ideia biribilen II lehiaketaren epaimahaia.
- Mintzakide Programa: Udalaren Euskara Zerbitzua eta Ulibarri Euskaltegia.

GASTEIZKO UDALA

- Gasteizko II. Gazte Planaren eraketaren Jarraipen Batzordean parte-hartzea.
- Gazteria Politikak aztertzeke Foroa"

EAE-KO HERRIETAKO UDALAK



Gaztelink

Mal camino no va a buen lugar

Mapa hitza aipatzerakoan, jarraian galduta egotearen ideia, gure burua topatzearen beharra edo zerbait topatzearen beharra bezalako ideiak datozkigu burura. Lurraldetasun arloko hiru ildo nagusienak (EGK-ko elkarteeetako lana, Lurraldeetako sare eta eragileetako lana eta Administrazioetako gazteria saileetako lana) uztartuko lituzkeen proiekturako izen egokiagorik ez izateagatik, proiektua definitzeko balio zitzaigun hasierako hitz horrekin geratu zen: MAPA. Geroago, izen *cool*-ago batekin bataiatu genuen: Gaztelink izenarekin, hain zuzen. (Hots, gazteen-lotura; *link*: *lotura*).

Aurtengoa urte erabakigarria izan da Lurraldetasun arlotik inoiz garatu den egitasmo handiena garatzeko. Hiru urte igaro dira gazte eragile ororentzako ezinbesteko bilgunea sortzearen beharra ondorioztatu genuenetik. *“Esparruak hobera egin lezake eragile bakoitzak garatzen duena gainontzekoek ezagutuko balute eta elkarlanean aritzeko mekanismoak sustatuko balira”*: ideia horrekin konbentzita jaio zen mapa hau, gune hau, Gaztelink.

Ideiak eta proiektuak partekatzeko beharrezko tokia da, sareak eraiki, sinergiak sortu eta gazte elkartegintzaren sarea indartzeko; komunikaziorako eta informaziorako existitzen ez diren bideak erraztu ditzan eta mota guztietako jarduerak eta eskura dauden baliabideak bildu ditzan ere.

Horrela, informazio eza gainditzeaz aparte, lanaren biderkatzea eta eragileen arteko gainjarpena saihestuko genituzke. Nori ez diote ideia bat zapaldu? Nor ez da berritzen saiatu, segituanohartzeko ez duela Amerika deskubritu? Nork ez du pentsatu administrazioetatik garatutako politikak gazteen bizitzengan eragin eskasa dutenik? Nork uste du administrazioa gertu eta herritarren zerbitzura dagoela?

Testuinguru honetan, 2009an zehar 40 herri baino gehiagora hurbildu gara, horiek guztien errealitatea ezagutu eta mapa hau martxan jartzeko.


2009an zehar 40 herri baino gehiagora hurbildu gara, horiek guztien errealitatea ezagutu eta mapa hau martxan jartzeko

PARTEKATU. SORTU. JASO ETA GAUZATU.

Lau hitz hauetan sartzen dena, Gaztelink-en sartzen da ere. Informazio gehiagorako, **adi zuen pantailetara!**



GAZTELINK
euskal gazteriaren webgunea
.ORG



Bizi baldintza materialak



Banksy

Bizi baldintza materialak arloak gazteen errealitate honi erantzuten dioten elementu ezberdinak biltzen ditu bere baitan: etxebizitza, enplegua, gizarte ongizaterako baliabideak, lurralde antolamendua... Horiek guztiak gazteen independentzia materialean, askatasunean eta bizitza kalitatean berebiziko garrantzia duten aspektuak dira. EGK-k urteak daramatza ildo hau jorratzen eta aberasten. 2009an, hauxe izan da lan esparru honen helburu orokorra:

Arloan oinarrizkoak diren hiru gaien gaineko (etxebizitza, lan prekarietatea eta Oinarrizko Errenta) barne lana eta hausnarketa finkatu eta sendotu, beste eragileekiko lana irekiz eta indartuz, bai eta EGK-ren iritzia eta ekarpena administrazioan eta erakunde politikoen aurrean egon dadin bermatzea ere.

Gazteok autonomia pertsonala lortu arren, lan merkatuaren konfigurazioak eta etxebizitza izateko ezintasunak bultzatuta, gero eta beranduago eskuratzen dugu independentzia materiala. Haustura horrek bizitza proiektu propioa garatzeko baliabide ekonomiko falta dakar, eta gazteen hiritartasuna ahultzen du, gehienetan familiarekiko dependentzia ekonomikoa urteetan zehar luzatu eta jendartean jokatzeko dugun rola mugatzen delarik.

ENPLEGUA


GAZTEOK eta ENPLEGUA JARDUNALDIAK: Ilaratik irtengo gara?

Azaroaren 7an Bilbon eta 8an Donostian, enpleguaren inguruko formakuntza eta eztabaidarako jardunaldiak antolatu zituen EGK-k. Bigarren edizio honetan aukeratutako gaia enpleguko gazte politikak eta, konkretuki, hauek hobetzeko alternatibak izan ziren.

Jardunaldietan, herrialde, sexu, adin, lan-eremu eta ideologia anitzeko 50 pertsonen partehartu zuten. Parte-hartzaileen arteko erlazioa eta komunikazioa sustatzeko gunea eskaintzeaz gain, bertan landutako edukiekin eta eztabaidan agertutako ideiekin ONDORIO TXOSTEN bat argitaratu da (web orrialdean eskuratu dezakezu). Etorkizunean, jardunaldiak antolatzen jarraitzeko indarra eta asmoa dago, hauen tamaina eta kalitatean inbertsioa bat eginez.

ZENBAKIAK:
4000 gonbidapen
50 parte hartzaile
Ondorio txostenaren 800 ale





LAN ISTRIPUAK: Protokoloa

Tamalez, gaur egun, gazte izate hutsagatik lan istripu larriak pairatzeko arriskua biderkatzen da. Datu estatistikoek hori diote, eta hilda suertatzen diren emakume eta gizon gazteen gaineko berriek ere. Apirilaren 28an (Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna), eta lan istripu baten ondorioz gazte bat hiltzen den bakoitzean, lan istripuak salatzeko protokoloa aplikatu du EGK-k. Salaketa publiko hau kontseiluaren bitarteko komunikatiboen eta bestelako komunikabideen bidez egin izan da.

Gutxieneko soldataren antzerako errenta unibertsal batek ez luke prekarietatearekin amaituko, baina gazteriak pairatzen duen egoera arintzen lagunduko luke

OINARRIZKO ERRENTA_____

GAZTE EMANTZIPAZIOA eta HIRITARTASUNERAKO OINARRIZKO ERRENTA: Txostena

ZENBAKIA

500ale banatuko dira, gaiaren inguruko EGK-ren lehenengo jarrera-hartze publikoarekin

Azken urte otan antzemandako behar bati erantzuteko asmoarekin, gazte prekarietatea eta emantzipazioaren auzian Hiritartasunerako Oinarrizko Errentak izan dezakeen papera aztertzen duen txostena egin eta zabaldu du EGK-k.

Txostenak, gazteon lan baldintzen argazki eguneratu bat eskaintzeaz gain, gaur egun existitzen diren gizarte ongizaterako laguntzak aztertzen ditu eta oinarrizko errenta unibertsalak gazteon bizi baldintzetan izan ditzakeen onuren inguruko hausnarketa bat plazaratzen du.



GINARRIZKO ERRENTAREN IX. SIMPOSIUM-A



2008an EAE mailan Oinarrizko Errentaren inguruan gizarte mailako eragile ezberdinekin batera (Ezker Gogoa, EHNE, ESK, Gazte Berdeak, Argilan, Txiroekin Bat Eginez, EHU) hasitako ibilbidearen ondorioz eta Oinarrizko Errentaren sarearen laguntzaz, azaroaren 21 eta 22an Bilbon ospatu zen Oinarrizko Errentaren Simposiumaren antolatzeari ekin zaio.

Simposiuma arrakasta nabarmena izan da, ponentzien kalitate mailagatik, parte hartzaileen kopurua eta prozesuan zehar landutako harremanei dagokionez.

DATUAK:

80 parte-hartzaile

Nazioarteko hizlariak

Arlo akademikoa, administratiboa eta gizarte mugimenduen arteko elkarlana

OSASUNA

HIESA saihesteko CJEarean kanpaina

*El virus no importa si el sexo es seguro.
(Stop SIDA)*

Beste urte batez, CJEk (Consejo de la Juventud de Euzkadi) egindako HIESaren saihezpenerako kanpainaren barruan (*Condonéate. Atsegina, babestuta, atseginago* lelopean), hainbat material eskatu dugu gure elkarte zein osasun arloko eragileen artean banatzeko: 12.000 gizonezko kondoi, 200 emakumezko kondoi, 1350 gida (500 euskaraz, 750 gaztelaraz, 100 arabieraz), 500 lubrifikatzaile, 30 aho-sexurako oihala eta 450 postal, besteak beste.

HIESaren inguruan aspaldi ez dago berezko laniketa edota egitasmorik EGK-ren barruan, eta elkarteek ez dute lan-ildo honetan proposamenik egin. Hala ere, doako materialak ez aprobetxatzea zentzugabekeria iruditzen zaigu: badakigu EGK-ko elkarte askok gaiaren ingu-

Hogei eragile baino gehiagok jaso dituzte kondoiak, lubrifikatzaileak eta gidak

ruan formakuntza berezia egiten dutela, beste batzuk kanpaina propioak dituztela eta EGK-tik kanpo dauden beste eragile askok ere material honi uko egingo ez diotela. Horregatik urtero material-eskaera egiten dugu (lurraldetasun arloa arduratzen da), elkartei eskainitako zerbitzu bat bezala. EAE mailan, guztira 21 eragile desberdinek jaso dute aipatutako materiala.

ETXEBIZITZA

ETXEBIZITZA POLITIKETAN parte hartzeko FOROA

2007an hasitako ibilbideari jarraituz eta Etxebizitza Legearen osaketa prozesua aprobetxatuz, *Etxebizitza politikan parte hartzeko foroak* hiru gaien gaineko eztabaidari ekin dio: hots, etxebizitzarako eskubidea, alokairu publikoa eta etxebizitza hutsak. Horien gaineko ekarpenak egin ditu foroak, gobernu eta administrazioarekiko harreman zurbia irudikatuz. Horren emaitza dira garatutako zenbait dokumentu (bata desjabetzen ingurukoa eta bestea fiskalitatearen ingurukoa).






2009ko maiatzean egondako gobernu aldaketaren ondorioz, dokumentu hauen lanketa eta lantaldearen dinamika orokorra baldintzatuak izan diren arren, Foroaren norabide berria marrazteari ekin zaio.

LURRALDE ORDENAMENDURAKO IRIZPIDEAK: DOT* Lantaldea

*Directrices de Ordenación del Territorio

*Maite ditut maite,
gure bazterrak lanbroak
ezkututzen dizkidanean...
(Mikel Laboa)*



Lurraldearen antolamenduak gazteen bizi baldintzetan, bai etxebizitzaren eskuragarritasunean zein espazioaren antolamenduan ere duen eraginaz jabetuta, diskurtso propioa garatzen hasteko beharrari erantzuteko urratsak eman dira 2009an. Kontseiluaren asmoa Eusko Jaurlaritza lantzen ari zen testuaren idazki alternatibo bat aurkeztea izanik, EGK osatzen duten elkarte ezberdinek eta ekipo teknikoko kideek osaturiko lan taldea abian jarri da. Bere zeregin nagusia gizakion bizi kalitatea ardatz izango duen ekonomia eta gizarte bat eratzeako testua garatzea izan da. Idazki hau 2010eko batzar orokorrean aurkeztuko da, talde guztien onarpena jaso

dezan. Hortik aurrera, jendarteratze lana egiteko unea izango da: zentzu honetan, talde desberdin ugarik norabide berean tira egiteko balio dezake txostenak.



Horretaz gain, Bilbon ospatutako Euskal Hiria VIII. Kongresuan parte hartu du EGK-k, bertan eskuragarri egon den informazioaz *bustizteaz* gain, gaia jorratzen duten bestelako gazteekin sareak eratzeko asmoarekin ere.


LANDA EREMUA

GAZTE BASERRITARRAK, hizpideak

“Hablar de la juventud agroganadera vasca es en gran parte equivalente a hablar de la realidad que atraviesa el sector primario en nuestra Comunidad Autónoma, sector que a lo largo de las últimas décadas sufre un proceso de constante depresión y de pérdida de importancia, víctima tanto de dinámicas locales como de dinámicas globales”.

Hizpideak 4: Gazte Baserritarrak

Landa eremuko gazteen bizi baldintzen azterketarekin hasitako lanari jarraipena emateko, Hizpideak 4. *Gazte Baserritarrak*



liburuxka egin da. Zertarako? EAE-ko gazte baserritarrek bizi duten testuingurua eta bizi baldintzen diagnosia jendarteratzeko eta egoera hori hobetzeko dauden aukerak ezagutzera emateko. Otsailaren hasierarako kalean egongo da liburuxka, paperean eta formatu digitalean.

ZENBAKIAK
700 liburuxka
eta 500 CD

ELIKADURA SUBIRANOTASUNA: tailerrak



Elikadura subirautza munduko komunitateek, herriek eta herrialdeek euren berezko ezaugarri kulturalai egokitutako nekazaritza, arrantza, elikadura eta lurzoru politika ekologikoak eta justuak definitzeko eskubidea da



EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) eta EGK-ren arteko elkarlanaren ondorioz, eta betiere landa eremuko gazteen eta gazte baserritarren bizi baldintzak hobetzeki begira, elikadura subiranotasunak suposatzen duena eta izan ditzakeen onurak ezagutzera emateko hitzaldi-tailerrak antolatu dira.

EAE-ko hiru lurraldeetako hiriburu bakoitzeko tailer bana burutu da, urria eta azaroa bitartean. Guztira, 30 gazte inguruk parte hartu dute. Gazte

hauen profila anitza izan da: nekazaritza eta geografia ikasleak, gazte asanbladetak kideak, gobernuz kanpoko erakundeetako kideak, nekazari gazteak, kontsumo taldeetako kideak... eta abar luzea.


ZENBAKIAK
500 triptiko banatu dira,
hiru tailer burutu
eta 40 parte-hartzaile erakarri

SAREAK _____

Interlokuzio POLITIKOA eta ERAKUNDEEKIKO LANA

Arloaren barruan garrantzi handia duen eremua da erakundeekiko lana. Finean, garatzen diren politiketan EGK-ren diskurtsoa bermatua egon

dadin lan-tresna bat da, eta erakunde eta administrazioarekiko *feedback*-a bermatzean datza.



→ Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua gizarte-zerbitzuen eremuan lan egiten duten entitateek, elkarteek, sindikatuak *etab.*ek parte hartzen duten organo aholku-emailea da, gizarte-ongizate alorreko proposamenak plazaratu eta Eusko Jaurlaritzarekin lantzeko helburuarekin biltzen dena. Bertan EGK-ren diskurtsoa plazaratu eta gazteen bizi baldintzen hobekuntza bermatuko duten politiken alde egiteaz gain, beste eragileak ezagutu eta gobernu berriarekin hartu emana ahalbidetzea izan da kontseiluaren xedea.

→ Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailetik martxan jarritako *Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean* etxebizitza arloan inplikaturako gizarte-eragileen eta eragile publiko zein pribatuen artean adostasuna lortzeko bidean, EGK-k urtetan zehar garatu izan duen diskurtsoa bertan defendatu eta gazteen etxebizitzarako sarbidea bermatuko duten politiken aldeko apustua egin du.

→ Bilboko Udala, Hiri Antolakuntzarako

Plangintza Orokorren (HAPO) berrikuspena
Zer nahi du hiria/herriak? Los diferentes prismas en la planificación urbana de Bilbao'

Bilboko Udalak, Parte Hartuz-en laguntzaz (EHU) HAPOaren (gaztelaniaz, *Plan General de Ordenación Urbana*) berrikuspenaren inguruan

herritarren iritzia jasotzeko ospatutako saioetan parte hartu dugu.

GIZARTE ERAGILEEKIKO lana

Arloaren beste zutabe bat dugu, EGK-ren lanaren funtsean dagoena.

→ Etxebizitza Gazteontzat plataforma

Bilboko plataforma hau 2008an jarri zen abian eta ekimen gehienak urte horretan garatu zituen; 2009an bertan behera utzi da, eta prozesu honen parte hartu du EGK-k.

→ Etorkinentzako etxebizitza programen ebaluaketa prozesua

Etorkinei zuzendutako etxebizitza programak ebaluatzeko helburuarekin EAPN-Euskadi sareak abian jarri zuen prozesuan parte hartu dugu. Horretarako, etxebizitzako lan taldean parte hartu izan dugu eta, bertan, inmigrazio arloan etxebizitza duinen eskuragarritasuna errazteko ematen diren praktika onen inguruko gomendioekin garatu den dekalogoaren lan prozesuan gure ekarpena egin dugu.

→ Sindikatuak eta bizi baldintzetako eragileak, "Etxebizitza Duina guztiontzat"

Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala dela eta, zenbait sindikatu eta gizarte mugimenduko eragileekin batera elkarlan puntuala sortu da, abenduaren 14an ospatutako kontzentrazioan gorpuztu zena.



JARRERA-HARTZE PUBLIKOAK

Gazteen bizi baldintza materialen gaineko iritziak plazaratzeko, egoera salatzeke zein egunerokotasunean ematen diren berrien gaineko hausnarketak jendarteratzeko

hamaika posizionamendu publiko egin ditu arloak: alde batetik iritzi artikulatuak, bestetik komunikabideetan unean-uneko agerpenak (irriti, egunkari eta telebista kateetan elkarrizketak, solasaldiak...) eta, azkenik, txostenak.

ERRELEBUA

Azken lau urteetan zehar Bizi baldintza materialetako EGK-ko teknikaria Igor Mera izan da. Etxebizitzako teknikari bezala hasi eta handik gutxira, arloari orokortasuna eta osotasun handia eman zitzaizkion, bizi baldintza arloa izena bereganatu zuelarik. Urtetako barrurako eta kanpora begirako lan txukunaren ostean,



batzuetako etenaldiaren ostean, maiatzaren erdialdean Ane Abarrategik hartu zuen bere lekukoa.

E G K - r e n
presidentzia
ardura hartu
zuen 2009ko
m a r t x o a n
eta, hilabete



Hezkuntza

Lehenengo eta behin, urtean zehar egin duguna azaldu baino lehen has gaitezen hezkuntza kontzeptua azaltzen. Ezagutzak, balioak, ohiturak eta jardunbideak transmititzeko eta jasotzeko prozesua da hezkuntza. Oro har, eskolarekin (ikastetxeak, institutuak, unibertsitateak, etab.) lotuta dago, baina, pertsonak hezteko eta hezkuntza eginkizuna garatzeko, eskolaz gain, beste jarduerak, gune eta egoera sozial batzuk dira garrantzitsuak.

Hezkuntza modalitateak zehaztean, hiru esparru bereizten dira: hezkuntza formala, ez-formala eta informala, baina termino horiek, orokorrean, ez dira zehatzak hezkuntza komunitate osoari dagokionez. Hezkuntza informala bizitza osoan irauten duen prozesua da, eta, horretan, pertsonak ezagutza, gaitasun eta jarrerak ikasten dituzte, eguneroko esperientzietatik eta ingurunearekiko harremanetik (senideak, lagunak, hedabideak...).

Hezkuntza formala eta ez-formala informalarenezberdinak dira; ezasmoagatik, baizik eta hezkuntza prozesu antolatu, koordinatu eta sistematizatuak direlako, eta hori ez da hezkuntza informalarekin gertatzen.

Indar handiak jarri ditugu 2009an hezkuntza arloan, besteak beste, TIPI TOPA - Astialdi Hezitzaileari buruzko Biltzarra, administrazioekin elkarlana, unibertsitateko elkartegintzaren inguruko txostenaren aurkezpena, udalekuen eskuorria eta astialdiko kualifikazioen inguruko hausnarketak eta eztabaidak aurrera eramateko.

ASTIALDI FOROEN koordinazioa



Astialdi Foroa astialdi hezitzailearen alorreko zenbait taldek proposatutako foroa edo eztabaida-gunea da, astialdi eskolek, taldeek, federazioek eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako koordinazio taldeek osatua. Foro honen helburu nagusia, bi hitzetan, astialdi hezitzailea eta hezkuntza ez formalaren esparrua sustatzea da. Guztira, 11 astialdi taldeen federazio, 14 astialdi eskola eta 13.000 gazte dira plataformaren kide. Nahiz eta helburu berdinak izan, koordinazioa lurraldeka egiten da; beraz, hiru foro daude. Honek ez du esan nahi hiruren arteko topaketak egoten ez direnik gai zehatz batzuk lantzeko.

2009an zehar 77 bilera egin dira hiru foroen koordinazioa burutzeko eta honen agenda markatuta egon da TIPI TOPA - Astialdi Hezitzaileari buruzko Biltzarra eta koordinatzailearen aldaketagatik.

Lehenengo seihilabetean arloaren zeregin nagusia TIPI TOPA prozesua aurrera eramatea izan da. Taldeak, federazioak eta eskolak arduratu dira prozesua diseinatzeaz eta tamaina honetako proiektu erraldoi baten behar teknikoak betetzeaz.

ZENBAKIAK

**10 astialdi federazio,
14 astialdi eskola eta
13.000 gazte dira Astialdi Foroko plataformaren kide**

Gipuzkoan eraginkorra suertatu da TIPI TOPA. Biltzarraren prestaketak foroa gehiago batzeko balio izan du eta lurralde honetako elkarteek berriro hilero batzeko dinamika hartu dute.

Bizkaian taldeen partehartzea ezinbestekoa izan da Biltzarra aurrera eramateko eta baita hau bukatu eta gero ere inplikazioa mantendu da, askotan, hilero birritan batuz.

Araban guztiz kontrakoa gertatu da, TIPI TOPA proiektua oso handia zen haientzako eta taldeen parte-hartzea eskasa izan zen, batez ere, lurralde honetan liberaturik ez dagoelako. Biltzarraren ostean egoera guztiz aldatu da eta foroa hilero batzen da. Koordinatzeko estrategiaz aldatu zen eta taldeen egunerokotasunetik abiatuta haientzako garrantzitsuak diren gaiei heldu zaie: besteak beste, Arabako Aldundiarekin eta alderdi politikoekin interlokuzioari, dirulaguntzen murrizketa saihesteko. Elkarlan honek onurak ekarri ditu eta 2010ean Aldundiko sail guztietako partiden murrizketa %7a bada ere, gazte elkarreentzako direnak ez dira jaitziko.




Eskolek eta taldeek diskurtso amankomun bat garatu dute eskolen eta boluntarioen etorkizuna baldintzatuko dituzten kualifikazioen aurrean

Bigarren seihilekoan, foroetan gai asko jorratu dira. Besteak beste, **behar bereziak, instituzioekin elkarlana, dirulaguntzen dekretuak eta kanpalekuak**. Baina, dudarik gabe, gai nagusia astialdiko kualifikazio berriak izan dira. Eskolek eta taldeek indartsu heldu diote gai honi eta jarrera amankomun bat hartu dute eskolen eta boluntarioen etorkizuna baldintzatuko dituzten kualifikazio hauen aurrean.



TIPI TOPA, ASTIALDI HEZITZAILEAREN
INGURUKO BILTZARRA

Lehenengo sei hilabetean TIPI TOPA proiektua izan da astialdiko munduaren protagonista. Ohiko topaketa bat egin beharrean, mugimenduaren barne hausnarketa egiteko eta astialdi alorra sustatzeko eta suspertzeko gai izango zen lan prozesu oso eta borobildu bat garatzea zen asmoa. Hau dela eta, Topaketa nagusi bat egiteaz gain, hiru fase edo garaietan desberdintzen den 9 hilabeteko lan prozesu bat bideratu da, 2008ko irailetik 2009ko maiatzera arte: hiru hizketa, biltzarra eta sare-lana, hain zuzen. Guztira 270 pertsonak parte hartu dute prozesu osoan.



Prozesua hiru ardatz tematikoetan egituratu da.
Honakoak dira:

- Hezkuntza ez-formala administrazioetan.
- Zeharkakotasuna astialdi hezigarrian: urritasunak, aukera berdintasunerako hezkuntza, euskara eta aniztasuna.
- Partaidetza aktiboa astialdi hezigarritik.

FASEAK:

→ 2009an zehar **Litroak edan Aldundian** bezala bataiatutako bi aurre-hizketa antolatu dira. Hauetan gazteek, arduradun politikoek, eta hainbat udaletako eta foru aldundietako teknikariek hartu dute parte: guztira administrazioetako eta elkarteetako



25 ordezkari. Hizketa hauek astialdiko taldek egiten duten gizarte lana eta administrazio ezberdinetako gazteria politikak alderatzeko gunea izan dira.



→ Biltzarra Euskalduna Jauregian egin zen otsailaren 27 eta 28an. TIPI TOPAren prozesuaren baitan egindako kongresuan 30 hitzaldietadynamikabainogehiagoeiginziren, non 171 pertsona parte hartu baitzuten, ia gehienak EAE-koak, Extremadura eta Kantabriatik etorritako pertsonen salbuespenekin. Topaketa oso ondo baloratu da eta oso erabilgarria izan da EAEn astialdia eta hezkuntza ez formalaren arloan lan egiten duten pertsonen eta elkarteek elkar ezagutzeko.

ZENBAKIAK:

TIPI TOPA prozesu osoan 30 hitzaldi eta dinamika baino gehiago egon dira eta 40 erakunde baino gehiagoko 270 pertsonen parte hartu dute

Azkenik, martxotik ekainera arte *Ahotik at 6* aldizkaria egin da. Bertan, prozesuaren ondorioak jaso, prozesuan jorratu ziren gai batzuetan sakondu eta landu barik geratu ziren astialdiko kualifikazio berriak jorratu ziren.

TIPI TOPAren web orria (www.astialdiforooa.org/tipitopa) proiektu honen lekuko ezin hobea du. Honetan, hitzaldien bideoak, ondorioak, iritzi artikulak eta hedabideetan argitaratutako berriak aurkitu daitezke.





UDAKO ESKUORRIA



Beste behin ere, Astialdi Foroaren protagonista nagusienetako bat hiru lurraldeetan taldeen udako aktibitateen eskuorria izan da. Aurten 147 udaleku eta kanpaleku jaso dira euskarri honetan: bederatzi Araban, 67 Bizkaian eta

71 Gipuzkoan. Kartel hauek EAE-ko gazte informaziorako bulego guztiei, Aldundiei, EGK-ko eta Astialdi Foroko elkarteei, gurasoen elkarteei eta Esku-hartze sozio-educatiboko Taldeei (*EISE*-ei: *Equipo de intervención socio-educativa*) bidali zaizkie.

HEZKUNTZA FORMALA

Zein da Unibertsitateko elkartegintzaren errealitatea? Zeintzuk dira haren indarrak? Eta ahultasunak? Ze elkarte mota daude? Guzti hau argitu nahian, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak **Unibertsitate esparruko elkarten sarerako hurbilketa** txostena argitaratu du. Dokumentu honetan, Unibertsitateko hainbat elkarterekin egindako hausnarketak eta azterketak plazaratzen dira. Oso tresna egokia da, beraz, bai mugimendu honetaz *jantzi* nahi diren ikasleentzat, bai hezkuntza esparruan kokatu nahi diren elkarreentzat ere.

Txostenean aipagarria da elkarten parte hartzearen dimentsioak (sozio-politikoa, laguntza eta partehartzea) eta tipologia (ikasle ordezkarietarako taldeak, elkarte kulturalak, kudeaketarako elkarteak, asanbladak eta



eragile politikoak) definitzen dituen azterketa, hala nola *DAFO* azterketa baten bidez egin den unibertsitateko elkartegintzaren diagnostiko parte-hartzailea.

Txostenaren aurkezpena abenduaren 16an egin zen, eta Ikasle Abertzaleak, Lurgorri, La Voz del Estudiante, Gizarte Zientzietako Asanblada Kritikoa eta Iratzarriko ordezkariak bertaratu ziren. Topaketan 2010ean jorratu nahi diren bi gai nagusitu ziren: alde batetik, **ikasleek pairatzen duten informazio falta unibertsitateko elkartegintzaren inguruan**; eta, bestetik, elkarrekin instituziotik jasotzen duten babes eskasa.

Bost taldek hartu zuten parte Unibertsitateko elkartegintzari buruzko txostenaren aurkezpenean

Eta 2010ean... ZER?

Hezkuntza arloan mahai gainean jarraitzen duten gaiak asko dira, baina aipagarrienak honakoak dira: astialdiko kualifikazio berriak, administrazioarekin elkarlana, udalekuak, behar bereziak, gizarteratze eta komunikazio kanpainak, web orrialdea eta udako jardueren eskuorria.



ERRELEBUA



Arlo honetan aurpegi berria daukagu. Jose Ángel Romo Hezkuntza arloaren koordinazioan hiru urtez jardun eta gero, Iván Barriori pasa dio lekukoa. Azken honek, TIPI TOPA biltzarraren arduradun izan eta gero, hiru lurraldeetako Astialdi Foroaren koordinazioa aurrera eramatea du helburu orain, bai eta arlo honetako beste proiektu guztiak ere.



Justizia eta berdintasunerako baldintzak

Gure bizi-proiektua modu aske eta independente batean erabaki ahal izateko, norbanako orok behar ditugu baldintza gutxieneko eta nahitaezko batzuk. Baldintza horiek aspektu sozio-ekonomikoekin lotuak egon ohi dira, baina ez beti. Aukera berdintasunak, eskubide sozial eta politikoak eta hiritartasun parte-hartzaileak, besteak beste, honakoa frogatzen dute: gure bizitza baldintzatzen duten zirkunstantzia guztiak ez direla materialak edo monetarioak. Ikuspuntu horretatik abiatuta, hainbat lan-ildo mahaigaineratu genituen: bake hezkuntza, herrialde txirotu eta aberastuen arteko harremanak, kanpo-zorra, kultura-aniztasuna... eta abar. Ezinbesteko lan-lehengaiak dira, gizarte justuago eta errespetuzkoago bat lortu nahi baldin badugu

BAKEA

BILBOKO BAKEAREN astea

Gizabanakoen artean nazioen artean bezala besteren eskubideari begirunea da bakea eta exijitu esan dugu betebeharreko baldintza baita besteren eskubideari errespetua da bakea (Negu Gorriak)

Bilboko Udalak, bere bosgarren Bakearen Astea antolatzeke, bake heziketan, giza eskubideetan

eta gizarte gaietan dihardugun zenbait gizarte eragile kontuan izan nahi izan zituen Astearen egitaraua egiteko eta betetzeko, iazko formatoa aldatu izan zutela kontuan harturik. Aurreko urteetan Bakearen arlo zehatz ezberdinak jorratu bagenituen, aurten bakea era orokorrean jorratzea izan zen asmoa.

Elkarte bakoitzak konpromezu batzuk bere gain hartu zituen. EGK-ren lana, askotan bezala, ekintza elkarteei bideratzea izan zen. Eragileok bakea gaia nola ukitu erabaki genuen, jarduerak proposatuz. Jarduera guztiak karpa handi batean garatzea zen asmoa.

Eragileon aniztasuna kontuan hartuta, ukitzen ez ziren beste gai batzuk jorratzea proposatu genuen: indarkeria matxista eta herri txirotuetan enpresa transnazionalak eragiten duten bortizkeria, kasu. EGK-ren proposamenak atzera bota zituen Udalak, bere esanetan, gai horiek ez zirelako aste horretan lantzekoak. Argi geratu zen erabakiak nork hartzen dituen. Hori guztia ikusita, EGK-n zalantzak izan genituen gure parte hartzearen inguruan; izan ere, elkarteen hitzak Udalak markatutako patroietik at bazeuden, guretzat mahai horrek ez baitzuen baliorik. Azkenean, uholde arriskua zegoela eta, bertan behera geratu zen V Bakearen Astea.

KULTURARTEKOTASUNA

Eremu hau zehatza eta anitza da hein berean. Izan ere, etorkinen eta gutxiengo etnikoen alorra zehaztu daiteke, baina aldi berean, jendarteko alor guztiak barne hartzen ditu. Izan



ere, kolektibo hauen eskubide eta betebeharez gain, ikuspegi politikoa, soziala, kulturala eta bizikidetzakoa barne hartu behar dira. Begiratzeko prisma altxatzen bada, ikuspegi holistikoagoa lortuko delarik. Denak berdinak garela aldarrikatu nahi da, bertako jendarte eta kulturaren denon bizikidetzaren bultzatzeko bitartekoak sortu nahi direlarik .

IJITOEN HISTORIA eta KULTURA Jendarteratzea

Ustea ez da jakitea

Hilabetetako lankidetzaren ondoren, Kale Dor Kayiko Ijito Kultur Elkartek eta EGK-k hitzaldi sail bat antolatu zuten euskal jendarteak kultur aniztasunaren kontzientzia hartu dezan. Saioak azaroaren 25an eta abenduaren 2an eta 9an burutu ziren Donostiako Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Filosofia eta Hezkuntza Zientzien (FIHEZI) fakultatean.


Hitzaldiak hiru saiotan banatu dira. Llehenengoan, ijitoen historiari eta kulturari hurbilketa egin da. Bigarren saioan, ijito herria gaur egun zertan den galderari erantzun zaio. Eta hirugarren saioan, kulturarteko elkarrikitza landu da.

Oro har, saioen balorazio positiboa egiten da, bai maila kuantitatiboan , hiru saioetan 43 pertaide izan baitira, baita maila kualitatiboan ere, parte-hartzaileek oso ondo baloratu dituzte eta. Beraz, Ijito Herriaren errealitatea jendarteratzea lortu da gazte ikuspegi batetik.

ZENBAKIA:

Ijito Herriari buruzko hiru hitzaldiek 43 pertsona erakarri zituzten





MARKO IDEOLOGIKOA

Diskurtsoa argitu, hausnarketa piztu eta elkarte sarea ezagutu

2007ko Batzarrean onartutako Kulturartekotasun Dekalogoak oinarri harturik eta 2008an egindako lana kontuan harturik, marko teorikoan sakondu da 2009an. Horretarako, aditu eta elkarte ezberdinetako kideekin bilera saioak burutu dira, elkar ezagutza bultzatzeaz gain beren jakintza jasotzeko ere. Izan ere, edozein ekintza burutu aurretik garrantzitsua baita elkarte sarea ezagutzeaz gain oinarri teorikoak ondo finkaturik izatea.

Marko teorikoan sakontzeko, ikuspegi holistikoa bultzatu da, irizpide hauek kontuan hartuz:

- Politikoa: herritartasunaren aitortza eskubide eta betebeharrak oroz.
- Soziala: jendarteko parte-hartzea eta ikustarazpena.
- Kulturala: ikuspegi zabal batetik, euskal kultura eta aniztasun kulturalaren arteko oreka bilduz.
- Bizikidetzak: komunitateen arteko bizikidetzan sakonduz.

Teoriatik praktikara:

Marko teorikoa egituratzeko ikuspegi akademikoa eta profesionala, aniztasuna lantzen duten eragileena eta etorkinen elkartearen ahotsoa kontuan hartu dira. Honela, egindako lanketa bi eremutan banatu da, elkarriketak burutuz eta dokumentuak aztertuz.

Bestelako helburuak ere bete dira. Izan ere, eremu honetan jarduten duten, elkarte, eragile eta adituekin harremana sortu baita. EGK-ren lana eta egitura oro har zabaltzeaz gain, beste eragileak ere gertutik ezagutu dira.

2009an egindako lanari garraipena emateko asmoz, 2010. urtean EGK-ren baitan eta kanpora begira eztabaida eta hausnarketa bultzatzeko, lan-talde bat sortzeko asmoa dago.

EAE-ko Herritar ETORKINEN Integrazio eta Partaidetza Sozialerako FOROAN partaidetza

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan parte hartu du EGK-k; zehazki, herritar partehartzea, kultura eta sentsibilizazio batzordean. Honela, Bigarren Euskal Inmigratio Planari jarraipena egiteaz gain, proposamenak eta iradokizunak burutu dira beste erakundeekin lankidetzan.

Hausnarketarako bilgune

Aurten, herri mailako herritar etorkinen partaidetzarako praktika onen adibideak aztertzeaz gain, inmigratioaren trataerari buruzko hizkuntza egokitasuna landu da. Sentsibilizazio eta informazio kanpainak ere aztertutako kulturartekotasunabultzatzeko estrategietan sakondu. Azkenik, lan eremuko eskubide urraketen gaia aztertzeaz gain, oro har etorkinen partaidetza sustatzeko mekanismoak aztertu eta proposamenak burutu dira. Proiektu honekin, EGK-ren zutabeetako bat den *erakunde publikoekiko lankidetzak* bultzatu da.

Bigarren Euskal Inmigratio Planari jarraipena egiteaz gain, proposamenak eta iradokizunak burutu dira beste erakundeekin lankidetzan



KULTURARTEKOTASUNA eta ELKARTEGINTZA



Munduaren erdiak ez daki beste erdia nola bizi den



Elkartegintzari dagokionez, Harresiak Apurtuz etorkinen koordinadorekin lankidetzan bultzatu da **Mundu bereko auzokideak** kulturartekotasun egunaren antolakuntzan. Horretarako, ekainetik hasi eta azaroa bitartean, eguna prestatzeko koordinazio bileretan parte hartu da, gazte ikuspegia bultzatuz. Eguna prestatzeko lan ekimen honetan, koordinadorak barne hartzen dituen etorkin eta etorkinen aldeko elkarteekin harremana sortu eta finkatu da, EGK-ren presentzia bermatzeaz gain.

Durango, aniztasunaren topagune:

Azaroaren 15ean burututako *Mundu bereko auzokideak* eguneko prestaketei begira, EGK-k euskarazko hedabideenganako komunikazio ardura bere gain hartu du. Honela, hiru irrati eta bi telebista kateei elkarriketak eskaini zaizkie.

ANIZTASUNA GAZTERIA POLITIKETAN ARABAKO LANTALDEA

...Kolore bizia, arrazakeriaren kontra. Kolore guztiak, faxismoaren kontra. Kolore bizia, xenofobiaren kontra. Kolore guztiak, faltsukeriaren kontra. (Negu Gorriak)

Gazteria Politiken inguruko *Ahotik* at aldizkariaren 5. aleak zaindu nahi genuen



perla bat utzi zigun. Aldizkarian bertan, gazteria politikak bere osotasunean lantzeko, aniztasunari buruzko mahai-inguru bat osatu genuen.

Mahai-inguruan parte hartu zuten kolektiboei bere errealitate edo egoera fisikoak, sozialak eta kulturalak sortzen dizkien beharrak eta nahiak anitzak dira eta, tamalez, gizarte politikek, eta bereziki gazte politikek, ez diete behar horiei behar bezala erantzuten. Hezkuntza formala eta aisialdia, etxebizitza, mugikortasuna, enplegua... bezalako alorretan dituzten beharrak edozein gaztek dituen berdinak izateaz gain, beraien errealitate fisiko, sozial eta kulturalak sortzen dizkienak dituzte ere. Aukera berdintasunean bizi eta gizartean normalizazioa aldarrikatzen dute. Gizartearen bizitzan eta parte hartzean sarbide unibertsala izatea. Horretarako beharrezkoa da gazteria politikak helburu hori lortzera bideratuak izatea.

Mahai-inguru horretako dinamikarekin jarraitzeko asmoz, parte hartu zuten elkarteak eta arloko beste eragile batzuei lantalde bat osatzeko proposamena luzatu genien, ondoren bertatik ateratako ondorioak gizarteratzeko.

Elkarte batzuen egoera dela eta, eta Arabako lurraldearen elkartegintzaren egoera bereziagatik, zail samarra izanda aurrez-aurreko bilerak antolatzea. Alternatiba legez, banan banako elkarrizketak burutu izan dira diskurtsoa garatzen joateko. Urrira arte ezinezkoa izan zen lehenengo bilera presentziala gauzatzea. Bertan elkarte guztien iritzia jasotzea lortu genuen.

Egindako ibilbidea ebaluatu eta elkarteek duten denboraren azterketa sakona egin ostean, lantaldearekin jarraitzeak merezi duen ala ez baloratu dugu.

LURRALDE ABERASTUAK /
TXIROTUAK _____

SAHARA



Sahara... hurra!





08ko udazkenean hasitako proiektu hau Nuyum elkarteak eginiko proposamen baten ondorio izan zen. Egitasmoa euskal gazte eta saharar gazteen arteko topaketa batzuk antolatzean oinarritzen zen, euskal gazteak herri zapaldu horren errealitate gordinaren jakitun egiteko. Era horretan, Euskal Herriak aspalditik eman dion laguntza horretan belaunaldi berriak inplikatzeari xedea.

2008ko urrian hasitako proiektu honek gazteez osaturiko talde bat osatzea aurreikusten zuen, 2009ko Aste Santua bitartean prestaketa lana eta bertako errealitatera hurbilketa teorikoak egiteko eta, ondoren, kanpamenduetara bidaia egin eta saharar eta euskal gazteen Lehen Topaketak burutzeko. Azkenean, ordea, talde bat baino hiru antolatu ziren, deialdiari erantzun zioten gazteen kopurua handia izan baitzen, 100 pertsona inguru hain zuzen.

Kanpamenduetan burututako topaketetan eginiko tailerretan gazteei eragiten dizkieten gai desberdinak jorratu ziren. Horrela, generoa, lana eta enplegua, ingurugiroa, aisialdia, osasuna... landu ziren beste gai batzuen artean, gatazka politikoa zeharkakoa izan zelarik.

Topaketen ostean, jada Euskal Herrian, kanpamendutan izan ziren gazteek elkartzen jarraitu dute, emozio eta sentimenduen indarrak ematen duten gogoaz. Zentzu horretan, **Yallah Gazte Ekimena** jarri da martxan, Saharako gatazka politikoa hemengo gazteei erakusteko helburuaz.

Topaketen ostean,
Saharan izan ziren
gazteek elkartzen
jarraitu dute, emozio eta
sentimenduen indarrak
ematen duen gogoaz

ZERO POBREZIA

*¿Quién hace que al hombre aqueje
el desprecio y la tristeza?
la pobreza (Quevedo)*

*Sé tú el cambio que quieres ver en el mundo
(Gandhi)*



Zero Pobrezia Plataforma mundu mailan **Milurteko Helburuak betetzeko munduko gobernariak presioa egin asmoz sortu zen plataforma** da. Euskal Herrian ere Plataforma hauek bere lekua hartu dute eta EGK horien kide da, munduko txirotasunari aurre egin nahi baitiote.

Zentzu horretan, Nazioarteko Pobreziaren Aurkako Eguna, urriaren 17a, izaten da Plataforma honen urteko egunik errebindikatzailena. Horrela, aurtengoan, munduak bizi duen krisi ekonomikoarekin uztartzen saiatu da, beste modu bateko mundua behar dela azpimarratzen. Ekintza desberdinak burutu dira hiru lurraldeetan, manifestazio, hitzaldi, bertso saio zein bizikleta martxak, besteak beste. Hala ere, ez da plataformak urte guztian burutu duen ekintza bakarra. *Munduko Arrozak, Beste Mundu Bat Errealitate Anitz* edota *Mundumiran* ere parte hartu du Pobrezia Zerok 09 urtean zehar.



Munduan pobreziak
eta desberdintasunak
dirauten bitartean, EGK-k
bere harri koskorra jartzen
jarraituko du

EKINTZA GLOBALERAKO ASTEA

*...Cuando la fiesta nacional yo me quedo en la
cama igual,
Que la música militar nunca me supo levantar...
(Paco Ibáñez)*

Munduko Foro Sozialak deituta, martxoaren 28tik apirilaren 4ra mundu mailako Ekintza Astea antolatu zen Belem-en (Brasil), *Krisialdia eta guda sortzen duen sistemaren aurka* lelopean. Era horretan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan EGK izan zen beste eragile batzuen eskutik ekintzen antolaketa arduratu zena. Orotara, lurralde historiko bakoitzean 40 bat izan ziren ekintza astean parte hartu eta manifestua sinatu zuten eragileak, sindikatu, gazte elkarte GKE, zein alderdi politikoak besteak beste, mundua bizitzen ari den krisiaren eta guden erantzule sistema ekonomikoa eta bere eskutik 2009an 60 urte bete zituen NATO-a eginaz.

Lurralde historiko
bakoitzean 40 bat izan
ziren Ekintza Astean
parte hartu eta manifestua
sinatu zuten eragileak

GERRAREN AURKAKO PLATAFORMA

*¿Cómo compaginar la aniquiladora idea de la
muerte con ese incontenible afán de vida?
(Mario Benedetti)*

2009. urtea aspalditik munduak duen orbain baten odolustutze berri batekin hasi zen: Gazaren inbasioa. Urtarrilaren 3a zen, aurreko egun zein asteetan Gazako mugetan zain zeuden tanke eta hil makinak martxan jarri eta populazio zibilaren aurka oldartu zirenean.

Israelgo estatu sionistak martxan jarritako sarraskiari erantzun asmoz, aurrez aktibatuak egon ziren Irakeko gerraren aurkako plataformak martxan jarri ziren sarraski berri hau gelditu behar zela kaleetan oihukatzeke.

Horrela, manifestaldi, kontzentrazio zein boikot ekimen desberdinak jarri ziren martxan Palestinar herriak libreki eta askatasun osoz bizitzeko eskubidea aldarrikatuz, lurren lapurreten eta kolonizazioen gaineratik herri horren eskubideak nazioartean aldarrikatuz.

Urte bat baino gehiago igaro da eta Gazako mugak itxiak daude, bertako hiritarrak duintasun osoz eguneroko bortitzenean bizi irauten saiatzen ari direla. EGK-k argi du horrelako injustizia eta bortizkerien aurka beti altxatuko duela boza, eta oraindik orain, munduko orbain hau ez da sendatu. Beraz, lehenago edo beranduago baino tamalez gai honi berriz ere eutsi beharko zaio. Ea noiz den eguna bakeaz, duintasun eta askatasunaz hitz-egiteko elkartzen den gizartea gai honen inguruan, horrek, orbain honen itxierak, mundu hobeago baten aldeko borrokan aurrera pauso itzela suposatuko baitu.

Komunikazioa

Hiztegiaren lehen adieraren arabera, komunikatzea honakoa da: bestea zerbaiten partaide egitea. Partekatu, azken finean. Hori da hain zuzen EGK-ko Komunikazio arloa egiten saiatzen dena: bata besteari kontatzeko diogun guztia konpartitu. Nola?

- Web orrialdea elkarten egitasmo eta deialdien topagune gisa elikatuz.
- Hilero Berriz-Berri poster-agenda plazaratuz, elkarten ikastaro, tailer, jai eta mobilizazioen berri ematen (komunikazio-euskarri gutxi dituzten taldeenak, batik bat).
- Lau astero egkDIGITALA izeneko buletinean EGK-k hilean zehar egindakoa gainbegirada bat eskainiz.
- Hamabostaldi, GaztePress buletin digitalean gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen berriak bilduz eta sailkatuz.
- Argitalpenak diseinatzeko, prentsaurrekoak prestatzeko, elkartei komunikazio-aholkularitza eskainiz, hedabideekin elkarrekin eta erreportaiak lotuz... besteak beste! Hona hemen azken urteari birpasatxo bat.

BERRIZ BERRI

Zazpigarren urtez, EGK-k hilero-hilero Berriz Berri izeneko poster-agenda plazaratu du.

Zertan datza egindako lana?

EGK osatzen duten (eta, neurri txikiago batean, kontseiluko kide ez diren taldeen) jai, ikastaro, tailer, jardunaldi eta beste motatako deialdiren berri emateko balio du Berriz Berriak. Batzutan, gainera, elkarten inprimaki, triptiko eta liburuxkak bidaltzen dira Berriz-Berriarekin batera (enkarteak), taldeek beraiek horrela eskatuta.



Zein hizkuntzatan?

Bi hizkuntza ezberdin berdintzeko, tratatu ezberdina eman behar zaie. Konbentzimendu horretatik abiatuta, 2009an EGK-k pisu gehiago jarri du balantzaren alde batean. Euskararenean, hain zuzen. Berriz Berriaren edukiaren %80a euskaraz argitaratu da.

Nork jaso du?

Elkarteek, gizarteetxeek eta auzoetxeek, gazte informazio bulegoek eta administrazioako gazteria arloek jaso dute. Guztira, 2009an hartzaileen zerrenda 1.700ra igo da!

ZENBAKIA:

Berriz Berria 1.700 postontzitarra heldu da hilero-hilero

egkDIGITALA

Komunikazio arloko beritasun nagusienetakoa izan da 2009an. EgkDigitala hilabetearen amaieran bidaltzen den buletin digitala da. Kontseiluak azken lau astetan egindakoaren berri ematen du euskarri honek. Bere jaiotzatik, hamar izan dira argitaratu diren buletinak. Guztira, 300 postontzi digitaletara heldu da. Zehatz mehatz, gazte elkarte, gazte bulego, institutu eta administrazioeko gazteria arlotara.



GaztePress

Martxan da 2010ean
gaztePress eraberritzeko
prozesua

Buletin digital honek gazteei buruzko edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen 200-300 bat berri bildu eta sailkatu ditu hamabostaldi, bere ibileraren bigarren urtean. Ia 700 elkarte, plataforma, sindikatu, talde politiko, udaletxe eta aldundik jaso dute, hala nola harpidetu egin diren hainbat norbanakok ere. 2010. urtean, EGK-k buletina eraberrituko du: kategoria berriak izango ditu eta formatu praktikoago bat estreinatuko du.

Ahotik at

Iragan den urtean sei-hileroko *Ahotik at* aldizkariaren bi zenbaki berri kaleratu ziren. Horietako bat (5.zka) Gazteria Politiken inguruan, eta, bestea (6.zka), Astialdi Hezitzailearen inguruan. Horretaz gain, 2009an EGK-k 7.alea prestatu du. 2010ean aterako da labetik eta, oraingo honetan, emakume gazteak izango dira monografikoaren protagonista.

Laster ikusiko du argia
2009an prestatutako
7. Ahotik at-ak



DURANGOKO AZOKA



Seigarren urtez, EGK-k stand bat alokatu du Durangoko Azokan, kontseilua osatzen duten elkarten esku jartzeko. Oraingo honetan, lau izan dira euskal kulturaren erakuslehoi erraldoi honetan egon nahi izan dutenak:

- Euskalerriko Eskautak Bizkaia.
- Trukeme (Bakeola).
- Askagintza.
- Gehitu.



WEB orrialde berria martxan!

Egungo web-ataria gaurkotua mantentzeaz gain eta **Gaur Prentsan** izeneko gunea (gazteei buruz edo gazteentzat erakargarriak izan daitezkeen eguneko albisteen txokoa) egunero elikatzeaz gain, 2009an zehar EGK-k web berri bat estreinatzeko osagaiak prestatu ditu, aho bete erronka eta berrikuntzekin:

- Agenda.
- Albisteak iruzkintzeko aukera.

- Web-guneko informazioa sare sozialetan partekatzeko tresna: hala nola, facebook, twitter... edo EGK-k abiatu duen GazteLink ehun berria!
- RSS bidezko harpidetzea.
- EGK osatzen duten elkarte guztien web-gunearen azken eguneraketak automatikoki ageri dituen leihoa: GazteSfera.
- Audio, bideoa... eta abar luzea!



ZENBAKIA:

136.527 bisita izan ditu egungo web-orriak

BERBAKEITA word-kafea



Berbakeita word-kafea (Berba=word, akeita=kafea), udazkeneko proiektu-kuttuna izan da komunikazio arloan. Ekimen honen mamia hiru-eztabaida saio izan ziren (Bilbon, Donostia eta Gasteizen), eta eztabaidagai bakarra: **Komunikabideek gazteei buruz ematen duten irudia.**

Guztira 60 pertsona bildu zituen egitasmo honek. Saio bakoitzean lau parte-hartzaile profil egon ziren. Profil bakoitzari kolore jakin bateko gomets bat zegokion, paparrean jartzeko. (**Profil bakoitzaren kolorea ezberdina izan zen saioaren arabera*). Arau bat zegoen: saioa amaitu arte jendeak ezin zuen bere burua aurkeztu, aurreiritzirik gabeko eztabaida errazteko.

- Kazteari gazteak. Horia.
- Gazte elkartuak eta elkartetan komunikazio ardurak dituzten gazteak. Berdea.

- Gazte ez-antolatuak. Gorria.
- Gazteria arloko Administrazioako teknikari eta politikariak. Urdina.

ZENBAKIA:

60 kazetari, gazte, elkartetako kide, teknikari eta zinegotzik parte hartu zuten egitasmoan

Word-kafe bakoitzean lau mahai zeuden, eta mahai bakoitzean, lau solaskide.

Edozein mahaietan eseri zitezkeen parte-hartzaileak. Baldintza bakarra zegoen: ezin



ziren profil bereko bi pertsona mahai berean egon. (Paparreko gometsaren bidez jakin zezaketen nor zen profil berekoa eta nor ez).

Solas-taldeak aldatuz joan ziren, txandaka. Zehazki, saioa lau eztabaida-gaietan egituratu zen; guztira, lau galdera, eta galdera bakoitzeko, 15 minutu. Behin lehen ordu laurdena bukatuta, solaskideak mahaiez aldatu behar ziren (ez blokean, baizik eta banan-banan).

Horretaz gain, mahai bakoitzean dinamizatzaile bat zegoen (mahaiez aldatzen ez zena). Bere lana eztabaida gidatzea zen eta, saioaren amaieran, solaskideek esandakoaren ondorio-laburpena parte-hartzaile guztien aurrean azaltzea. Ondoren, idatziz bidali behar izan dituzte ondorioak EGK-ra. Kontseiluko Komunikazio teknikaria arduratu da gero informe bateratu bat idazteaz. Ondorio txosten hori EGK-ko elkarte guztiek, EAE-ko beste elkarte gehienek eta EHU, Mondragon eta Deustu unibertsitateetako komunikazio-irakasleek jaso dute, bai eta erkidegoko komunikabide guztiek ere.

Ondorio txostena elkarteek, EHU, Mondragon eta Deustu unibertsitateetako komunikazio-irakasleek eta erkidegoko komunikabideek jaso dute

Estereotipoen gehiegizko erabilera, errealitatearen eraikuntza, kazetarien erritmo zoro-sutsua eta elkarten komunikazio-estrategiarik eza... izan dira hausnarketa-gai, besteak beste. Horiek guztiak dagoeneko zain dituzu www.egk.org txokoan!



Eta gehiago...

- EGK-ren jarduerarekin eta kontseiluak parte hartzen duen Plataformekin lotutako prentsaurrekoak eta prentsa oharrrak.
- Elkarrizketa, iritzi-artikuluak, agenda-deialdien eta abarren kudeaketa (prentsa idatzia, telebista, irratia).
- EGK-k hedabideetan izan dituen agerpenen jarraipena: **600 prentsa-agerpen baino gehiago** 2009an.
- Zenbait elkarteren argitalpenetan eta beste publikazio/komunikabide batzuetan kolaborazioak (Goitibera aldizkaria, Gehituren aldizkaria, Euskonews, Bizkaia Irratia...)
- Komunikazio-arloko aholkularitza eskaintza, elkar-teentzat.




ERRELEBUA

Azken zazpi urteetan, EGK-ko komunikazio arloa Alfre Elgezabalen sinonimo izan da. Berak jarri du martxan makinaria guztia! 2009ko urrian irratian hasi eta Itsaso Estarronari pasa zion lekukoa. Muga oso goian jarri dio!

...eta 2010ean...

Komunikazio proiektuek aldizkotasun finkoa dute EGK-ren agendan: eguneroko Gaur Prentsan, hamabostaldiroko gaztePressa, hileroko Berriz Berria eta egkDigitala, sei-hileroko *Ahotik at-a...* guzti horiek bere bideari jarraituko diote 2010ean. Bestalde, berrikuntza nabariak izango dira ere: web orrialde berriaren debutaz gain, kontseiluak Arabako komunikazio-proiektu euskaldun bat sortzeko prozesuan parte hartuko du (erabat euskaraz izango den proiektu arabar bakarra; izan ere, azken urtetan argitaratzen zen aldizkari arabar euskalduna 2009ko abenduan desagertu baizen). Bestalde, komunikazio arloak elkar-teentzat komunikazio-tailerrak prestatuko ditu, Berbakeita egitasmoko ondorioetatik abiatuta. Beraz... ez katez aldatu;)





Barne antolakuntza: Arlo teknikoaren koordinazioa



Kameraren atzean egiten den lana ez da ikusgarria, baina bai ezinbestekoa. EGK-n, funtsezkoa da Arlo-teknikoak koordinatzeaz arduratzen den teknikaria. 2009.urtean zehar, Olatz Alberdi arduratu da lan honetaz, udan Kontseilua utzi zuen arte. Geroztik, hutsik dago bere aulkia, ordezeko baten zain! Hona hemen arlo teknikoaren lan-zamaren laburpen xumea.

JARRAIPEN TXOSTENAK

Langile onentzako, eztao erramintte txarrik

EGK-ko teknikariek burutzen duten lanari buruzko txostenak dira. Hiru mota daude: urteko ebaluaketa memoria, urteko plangintza eta hilabeteko jarraipen eta informazio txostena.

Berrikuntza: lan taldeak 2 bilera egin ditu lan plangintzak ebaluatzeko (urte erdiko ebaluazio bat eta ebaluazio orokor bat) eta beste bat 2010eko plangintzaren garapena egiteko. Batzorde Iraunkorra eta lan taldearen arteko bi topaketa burutu dira: plangintzaren ebaluazioa egiteko eta 2010eko plangintzaren lan ildoak zehaztu eta garatzeko.

Etorkizun hurbila: hilabeteroko txostenak egitea mantentzea erabaki da eta plangintza eta memoriaren eraketan Batzorde Iraunkorra eta elkartearen parte hartzearekin jarraitzea. Erraminta egokiak aurkitzea izango da beste erronka.


EGOITZEN eta LAN TALDEAREN kudeaketa

Egoitzen kudeaketa teknikari guztien artean egiten da, beharrak eta gabeziak identifikatuz eta materialaren jarraipen eta mantentze egoki bat eginez. Hilabetearen behineko jarraipen bilerak burutu dira arlo tekniko bakoitzeko teknikaria eta arloetako koordinatzailearen artean. Langileen ordutegiak kudeatu dira, baita oporraldien antolaketa ere. Aurren, teknikari berrien kontratazioak burutu dira eta hauen egokitze prozesuak garatu ditu arlo honek.

LAN TALDE TEKNIKOAREN BILERAK

Geroa, alferraren leloa

Bilera hauek hilabetearen behin izaten dira hiru lurraldeetako egoitza ezberdinetan eta teknikari guztiez gain presidenteak ere parte hartzen du. Arlo bakoitzeko lanaren berri ematen da, proiektuen garapena aztertu eta ebaluatzen da eta barne-formazio eta hausnarketa saioak ere izaten dira.



EGK-ren XXVIII. BATZAR OROKORRA

Etorkizuna beren ametsen edertasunean sinesten dutenen eskuetan dago

2009ko EGK-ren Batzarra Donostian ospatu zen, martxoaren 14an. Batzorde Iraunkorra berria aukeratu zen, JUP, AVIEM, Iratzarri, Gazte Berdeak elkarteei sarrera eman zitzairen eta KEM-MOC elkartearen *bajaren* berri eman zen. 2008ko EGK-ren memoria eta balantze ekonomikoa onartu ziren. 2009ko EGK-ren aurrekontua onartu zen eta burutu beharreko plangintza. Plangintzaz kanpoko proiektu batzuen garapena bozkatu ere bai.

Batzorde IRAUNKORRAREN bilerak

Hilabetean behin egiten dira, Bilbon, Batzorde Iraunkorraren bilerak. Horietan, proiektuen garapenaren eta EGK-ren barne



idazkaritza

funtzionamenduaren jarraipena egiten da.

Berrikuntza: “Lan ekipo mistoen” sorrera, hau da, batzorde iraunkorreko kide bakoitza lan arlo tekniko bakoitzaren arduradun bihurtu da, lanerako taldeak dira, arduraduna eta teknikariak osatua: proiektuen garapena elkarlanean burutzeko, proiektu berriak zehazteko... arloen ildo ideologikoa zehazteko.

...beste batzuk...

→ **Ikastaroak, bestelako kolaborazioak**

Berdintasunaren alde: “Ezetx da Ezetx” salaketa kanpainan, 2009ko uztailean, Donostiako Udaleko Berdintasun Sailak antolatua.

→ **Diversidad lingüística en los Consejos de la Juventud topaketa:** Estatuko hainbat gazte kontseiluekin batera maiatzan, EGK-k manifestu bat sinatu eta berau aurkeztu zuen Oviedon.

2009 urteko BALANTZE EKONOMIKOA


DIRUSARRERAK		
1.- EUSKO JAURLARITZA. ZUZENEKOA. GASTU OROKORRAK		331.248,00 €
1.- EUSKO JAURLARITZA. ZUZENEKOA. INBERTSIOAK		6.000,00 €
3.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. GAZTERIA		42.000,00 €
4.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA GAZTERIA		28.790,65 €
5.- ARABAKO GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA		6.000,00 €
6.- TIPI TOPA BILTZARRA		37.220,76 €
6.1.-Gazte Ekinean (Injuve)	32.498,76 €	
6.2.- Bilboko Udala. Partaidetza Saila	2.000,00 €	
6.3.- Bilbao Bizkaia Kutxa.	737,00 €	
6.4.-Biltzarrean parte-hartzaileen dirusarrerak	1.985,00 €	
7.- SAHARAKO KANPAMENTUETARA BISITA		65.710,00 €
7.1.-Saharako bisitako parte-hartzaileen dirusarrerak	40.710,00 €	
7.2.- Donostiako Udala	6.000,00 €	
7.3.- Euskal Fondoa	6.000,00 €	
7.4.- Gasteizeko Udala	4.000,00 €	
7.5.- Euskaltel	6.000,00 €	
7.6.- Bilboko Udalda	3.000,00 €	
8.- EGAILAN		4.000,00 €
9.- 09 URTEKO KONTSEILUKIDEEN KUOTAK		2.524,20 €
10.- FINANTZIAR ONDASUNAK		639,55 €
11.- BESTE DIRUSARRERAK (FOROAK, IKASTAROAK...)		1.156,25 €
12.- EUSKO JAURLARITZA GAZTERIA (GAZTE TXARTELAKO PUBLIZITATEA)		3.000,00 €
GUZTIRA		528.289,41 €



GASTU	Gastuen zehazkepenak	ERABILIA
1.- GASTU OROKORRAK		134.627,53 €
1.1. LANGILE OROKORRAK		98.132,49 €
Koordinazio Nagusia (Presidentzia)		30.151,48 €
Soldata Gordina	23.738,95 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	6.412,53 €	
Administrarritza		42.199,53 €
Soldata Gordina	32.710,57 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	9.488,96 €	
Arlo Teknikoen Koordinazioa		17.958,17 €
Soldata Gordina	13.708,78 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	4.249,39 €	
Garbiketa Zerbitzua		7.823,31 €
Bizkaia		4.324,71 €
Soldata Gordina	3.232,23 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	1.092,48 €	
Gipuzkoa		2.394,24 €
Araba		1.104,36 €
1.2. EGITURA ETA KUDEAKETA		36.495,04 €
Kopiagintzak		939,01 €
Bidalketak		110,61 €
Bulego materiala eta informatika		1.388,56 €
Telefonoa, faxa eta interneta		5.666,66 €
Konponketak eta mantenua		2.846,61 €
Horniketak		4.183,05 €
Gestoritzak		1.935,64 €
Bestelakorik		213,51 €
Informatiketarako inberbsioak		6.081,85 €
Langileen osasunaren zainketa		948,91 €
Batzorde Iraunkorra		2.585,77 €
Batzorde Teknikoa		1.562,73 €
Harpidetzak		1.736,36 €
Entitate batzuetan parte hartzeko kuotak		757,25 €
EGK-ko Batzarrak		423,25 €
Batzorde Teknikorako formakuntza		1.810,76 €
Bulegoko altzariak		3.304,51 €
2. LAN ARLOAK ETA PROIEKTUAK		392.878,16 €
2.1 LURRALDEETAKO KOORDINAZIOA		117.923,15 €
Bizkaiko Koordinatzailea		31.151,66 €
Soldata Gordina	23.568,98 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	7.582,68 €	
Gipuzkoako Koordinatzailea		30.287,96 €
Soldata Gordina	22.916,50 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	7.371,46 €	
Arabako koordinatzailea		28.780,77 €
Soldata Gordina	21.705,00 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	7.075,77 €	
Lurraldetasuna		27.702,76 €
2.2 KOMUNIKAZIOA		71.259,97 €
Komunikazio Teknikaria		32.505,46 €
Soldata Gordina	24.714,96 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	7.790,50 €	
PROIEKTUAK		38.754,51 €
2.3 JUSTIZIA ETA BERDINTASUN BALDINTZAK		81.120,58 €
Justizia eta Berdintasunerako Teknikaria (Kulturartekotasuna)		9.195,11 €
Soldata Gordina	6.908,28 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	2.286,83 €	
PROIEKTUAK		71.925,47 €
Interkulturalitate Proiektuak		204,04 €
"Ijito Herriari buruzko hurbilketa" Jardunaldiak		398,56 €
Proiektuak:Lurralde Abestak eta Txirrotuak		897,47 €
Lankidetzarako Garapena		3.216,00 €
Saharako kanpamentuetara bisita		67.209,40 €
2.4 BIZI BALDINTZA MATERIALAK		40.941,22 €
Bizi Baldintzak Materialetarako Teknikaria		26.040,70 €
Soldata Gordina	19.582,96 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	6.457,74 €	
PROIEKTUAK		14.900,52 €
Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak Lan Taldea		732,19 €
Proiektuak: Etxebizitza		1.722,15 €
Proiektuak: Enplegua		6.078,35 €
Proiektuak: Landa Eremua		6.367,83 €
2.5 HEZKUNTZA		74.893,23 €
Hezkuntzarako Teknikaria		32.424,88 €
Soldata Gordina	24.821,08 €	
EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza	7.603,80 €	
Tipi Topa Biltzarra		37.238,91 €
Astaldi Foroetako Proiektuak		3.589,57 €
Hezkuntza proiektuak		1.639,87 €
2.6 BESTE PROIEKTU BATZUK (GAZTE LEGEA)		1.740,00 €
2.7 BESTE PROIEKTU BATZUK: 09 urteko memoria publikazioa		5.000,01 €
GUZTIRA		527.505,69 €

GASTUEN BANAKETA

■ GASTU
OROKORRAK
%26



■ LAN ARLOAK ETA
PROIEKTUAK
%74

ERABILITAKO AURREKONTUA

★ GELDIKINA
783,72 €
%0,15



★ ERABILIA
527.505,69 €
%99,85



Bizkaia

Autonomía, 44, behea (Bilbo) • 94 443 61 43

Presidentea • **Igor Mera** / koordinatzaile@egk.org

Idazkaria • **Cristina Díaz** / bilbao@egk.org

Hezkuntza Arloko Teknikaria • **Iván Barrio** / astialdiforooa@egk.org

Bizkaiko Koordinatzailea • **David Lopategi** / bizkaia@egk.org

Komunikaziorako Teknikaria • **Itsaso Estarrona** / komunika@egk.org



bizkaia

gipuzkoa

araba



Gipuzkoa

Andia, 11, nagusia (Donostia)
943 42 97 67

Gipuzkoako Koordinatzailea
Ibai Iriarte / donosti@egk.org

Kulturartekotasun Teknikaria
Mikel Ozaita / kulturarteko@egk.org

Araba

Ramiro de Maeztu, 15 behea (Vitoria-Gasteiz)
945 22 06 01

Arabako Koordinatzailea
Mireia Carretero / gasteiz@egk.org

Bizi Baldintzetarako Teknikaria
Ane Abarrategi / bizibaldintzak@egk.org

